

GRADUA: INGENIARITZA MEKANIKOA
GRADU AMAIERAKO LANA

***ERAIKIN INDUSTRIAL BATEN DISEINU ETA
KALKULUA MUNGIAKO LUISENSE
INDUSTRIALDEAN***

2.DOKUMENTUA – MEMORIA

Ikaslea: Ibinagagoitia, Cordobes, Oroitz

Zuzendaria: Laraudogoitia, Alzaga, Juan Esteban

Ikasturtea: 2017-2018

Data: Bilbo, 2018ko uztailak 17

AURKIBIDEA

2. MEMORIA

2.1. MEMORIA DESKRIBATZAILEA.....	1
2.1.1. PROIEKTUAREN HELBURUA	1
2.1.2. PROIEKTUAREN HEDADURA.....	2
2.1.3. AURREKARIAK	4
2.1.3.1. Kokalekua eta konexioak.....	4
2.1.3.2. Urbanizazio-baldintzak	5
2.1.4. ARAUDIAK ETA ERREFERENTZIAK.....	6
2.1.4.1. Lege-araudiak eta Arauak	6
2.1.4.2. Bibliografia.....	7
2.1.4.3. Kalkulu eta diseinu programak	7
2.1.4.4. Beste erreferentziak	8
2.1.5. PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA.....	9
2.1.6. DISEINU BALDINTZAK	11
2.1.6.1. Egituraren dimentsioak.....	11
2.1.6.2. Egituraren azalerak	11
2.1.6.3. Urbanizazio-datuak	12
2.1.7. PLANIFIKAZIOA	13
2.1.8. PROIEKTUAREN KOSTUA.....	14
2.1.9. OINARRIZKO DOKUMENTUAEN ARTEKO NAGUSITASUNA	15
2.2. MEMORIA ERAIKITZAILEA.....	16
2.2.1. ERAIKINAREN SOSTENGUA	16
2.2.1.1. Burututako ikerketa geo-teknikoa	16
2.2.2. ERAIKINAREN EGITURA.....	17
2.2.2.1. Zimendapena	17
2.2.2.2. Ainguraketa plakak.....	18
2.2.2.3. Forjatua	18
2.2.2.4. Altzairuzko egitura eta honen osagaiak.....	19
2.2.2.5. Loturak eta konexioak	22
2.2.3. BANAKETA SISTEMA.....	26
2.2.4. AKABERA ELEMENTUAK.....	27
2.2.4.1. Itxitura mota.....	27

2.2.4.2.	Fatxaden defentsak.....	28
2.2.4.3.	Barruko paretak.....	28
2.2.4.4.	Eskailerak.....	29
2.2.5.	INSTALAZIO-SISTEMAK.....	30
2.2.5.1.	Suteen aurkako instalazioa	30
2.2.5.2.	Saneamendu-sarea.....	33
2.2.5.3.	Iturgintza.....	34
2.3.	CTE BETETZEA.....	35
2.3.1.	EGITURAREN SEGURTASUNA.....	35
2.1.1.1.	Egituraren gainkargak	38
2.1.1.2.	Zimendapena	39
2.1.1.3.	Forjatua	40
2.1.1.4.	Altzairuzko egitura	41
2.3.2.	SUTE EGOERAKO SEGURTASUNA.....	44
2.3.2.1.	Proiektu mota eta oinarrizko dokumentuaren aplikazio-eremua	45
2.3.2.2.	SI 1: Barne hedapena.....	45
2.3.2.3.	SI 2: Kanpo hedapena.....	46
2.3.2.4.	SI 3 sekzioa: Ebakuazioa	47
2.3.2.5.	SI 4 sekzioa: Suteen aurkako instalazioak	48
2.3.2.6.	SI 5 sekzioa: Suhiltzaileen eskuhartzea	49
2.3.2.7.	SI 6 sekzioa: egituraren suaren aurkako erresistentzia	50

2. MEMORIA

2.1. MEMORIA DESKRIBATZAILEA

2.1.1. PROIEKTUAREN HELBURUA

Proiektuaren helburua eraikin industrial baten diseinu eta kalkulu erresistentea da. Eraikina Mungia herriko Luisense industrialdean kokatuko da, aktibitate komertziala eta industrial bultzatzeko asmoz.

Eraikin industrial salmentarako edo alokairurako erabilera espezifikorik ez duten ondoz-ondoko modulu berdinek osatzen dute. Modulu bakoitzaren dimentsioak 20x30 m² dira. Guztira 6 modulu izango dira, hau da, 4.200m² ko azalera okupatuko du lurzoruan.

Moduluaren egitura metalikoa izango da 5 m-ko aldearekin errepikatzen diren zazpi portikoz osaturik. Estalkia bi isurkikoa izango da 10°-ko inklinazioarekin horizontalarekiko. Hegalaren altuera 10 m-takoa eta gailurraren altuera 11,72 m-takoa izango dira. 20x5 m² forjatua izango dute bulegoak kokatzeko, komunak eta aldagelak forjatu honen azpian egingo dira. Goiko solairu honetara beheko solairutik gora doan eskailera metaliko baten bidez igotzen da. Forjatua 7 m-ko altueran kokatzen da.

Moduluaren parametroak:

• Azalera	600 m ²
• Altuera maximoa hegalera	10 m
• Altuera maximoa gailurrera	11,76 m
• Portikoen zutabeen arteko argia	20 m
• Portikoen arteko distantzia	5 m

Eraikinaren kokapena eta dimentsio zehatzak dokumentu grafikoetan zehaztuko dira, **4.Documentuan: Planoak** hain zuzen.

- **Proiektugilearen nortasun agiri zenbakia:**
78958546-Y
- **Proiektugilearen izen abizenak:**
Oroitz Ibinagagoitia Cordobes
- **Titulazioa:**
Ingeniaritza Mekanikoa

2.1.2. PROIEKTUAREN HEDADURA

Proiektu honek aipatutako eraikinaren eraikuntzan beharrezkoak diren elementu guztien diseinu eta kalkulua batzen ditu, hainbat instalaziorekin eta kanpoko urbanizazioarekin. Egituraren kalkulu guztiak Eraikuntzaren Kode Teknikoa (CTE) osatzen duten oinarritzko dokumentuak erabiliz egingo dira. Dokumentu hauek ezarritako balioak eraikinari eskatzen zaion kalitate balio minimoak dira, beharrezkoak diren segurtasun eta erabilera ezaugarriak betetzen dutela bermatzeko.

Egitura osatzen duten elementu ezberdinak definitzeko, eraikinaren aspektu teknikoak aztertuko dira, soluzio hoberena lortzeko. Bi material mota ezberdinez osatuko da: Altzairua (zutabe eta habeak) eta hormigoia (zimendapena eta forjatua).

Egitura osatzen duten elementu ezberdinak kalkulatzeko, CYPE Ingenieros enpresaren software-a erabiliko da. Software hau hainbat moduluk osatzen dute, proiektu honi dagokion eraikinaren eta instalazioen kalkulurako modulu hauek erabiliko dira: Generador de Porticos, CYPE 3D eta CYPECAD MEP. Aipatutako software hau, eraikinak diseinatzeko beste programa asko bezala, sistema matrizialean oinarritzen da kalkuluak egiteko.

Aurreko atalean azaldu den moduan, salmentarako edo alokairurako 6 moduluz osatzen da eraikina. Etorkezunean haietan emango den aktibitate industrialak ezagutzen ez denez, beharrezko instalazio minimo batzuk diseinatuko dira:

- Iturgintza instalazioa: Goiko solairuko komun eta aldagelak urez hornituko dituen instalazioa diseinatuko da.
- Euri-uraren instalazioa: Isurkiek batzen duten euri-ura poligonoko saneamendu-sarera bideratzeaz arduratzen da. Hodien ibilbidea diseinatu eta hauen diametroak kalkulatu dira.
- Suaren aurkako babesa: Beheko solairuan emango den aktibitate industrialak ezagutzen ez denez Luisense poligonoan eman daitezkeen aktibitate industrialak aztertuko dira eta su dentsitate karga altuena hartuko da sute arrisku maila kalkulatzeko. Arrisku maila kalkulatu ondoren legedia betetzeko neurriak hartuko dira.

Proiektu honetan, kalkuluen dokumentua egoteaz gain, Memoria bat dago ere. Memorian proiektuaren helburua deskribatzen da eta hartutako konponbideak justifikatzen dira. Behar bezala akotatuta dauden planoak sartzen dira ere, hauek proiektatu denaren definizioa osatzen laguntzen dute era eraikitzaile batean, dimentsioak, materialak eta beste datu-mota batzuk ezarriz.

Proiektu hau osatzeko baldintzen agiri bat dago ere, honetan proiektua

gauzatzeko beharrezko baldintza tekniko, ekonomiko, administratibo eta legezkoak sartzen dira, bestelako interpretazio posibleak saihestuz. Gainera, proiektu hau neurketa-kalkuluaz eta aurrekontu batez osatuta dago, hemen, lanaren osotasuna osatzen duten partida bakoitzaren unitateak, bakoitzaren kostua baita proiektuaren osotasuna ere definitzen dira, hurrenez hurren. Zehazki, aurrekontua hurrengo kontzeptuen arabera egituratuko da: Egite Materialeko Aurrekontua, Kontrata Bidezko Egitearen Aurrekontua eta Aurrekontu Osoa.

Modu berean, osasun eta segurtasun ikerlana egingo da, derrigorrezkoa proiektu mota hauetan, eta hondakinen gestiorako plana ere.

2.1.3. AURREKARIAK

2.1.3.1. Kokalekua eta konexioak

Eraikina Mungiako Luisense industrialdean eraikiko da 6.323,84 m² -ko lursailean. Poligonoa jada urbanizatua eta lausotua dago. Lursail horren parametro urbanistiko maximoak hartuko dira erreferentziazat eraikinaren dimentsioak ezartzeko.

Lursaila Luisense kaleko errepideak mugatua dago ia perimetro osoan hego ekialdean izan ezik, Auxema Stemmann Española enpresarekin mugatzen da. Eraikuntza egiterakoan makina eta pertsonentzako sarbidea hego mendebaldetik izango da.



1. Irudia: Partzelaren kokalekua industrialdearen barruan

Errepide sarearekin konexioa ona da, 1,5 km-tara BI-635 autobidea dago.

Kontuan hartu behar da pabiloiaren diseinuan Mungiako planeamendu subsidiarioa eta sektorearengan aplikatzen den plan partziala.



2. Irudia: Partzelaren kokapena errepede sarearekiko

2.1.3.2. Urbanizazio-baldintzak

Orubearen parametro urbanistikoak hauek dira:

- | | |
|---------------------------------------|-------------------------|
| • Lursailaren azalera | 6.323,84 m ² |
| • Onartutako okupazio maximoa | 4.253,82 m ² |
| • Onartutako eraikigarritasun maximoa | 7.370,22 m ² |
| • Erabili behar den azalera minimoa | 2.070,02 m ² |
| • Altuera maximoa hegalerara | 12 m |
| • Altuera maximoa gailurrera | 15 m |

2.1.4. ARAUDIAK ETA ERREFERENTZIAK

2.1.4.1. Lege-araudiak eta Arauak

- Código Técnico de la Edificación (CTE):
 - CTE DB-SE: Seguridad estructural.
 - CTE DB-SE-AE: Seguridad estructural, acciones en la edificación.
 - CTE DB-SE-C: Seguridad estructural, cimientos.
 - CTE DB-SE-A: Seguridad estructural, acero.
 - CTE DB-SE-F: Seguridad estructural, fábrica.
 - CTE DB-HS: Salubridad.
 - CTE DB-SI: Seguridad en caso de incendio.
 - CTE DB-SU: Seguridad de utilización.

- Reglamento de Seguridad Contra Incendios en Establecimientos Industriales.

- Instrucción para el proyecto y la ejecución de forjados unidireccionales de hormigón estructuras realizados con elementos prefabricados (EFHE)

- Instrucción Española del Hormigón Estructural (EHE)

- Normas Tecnológicas de la Edificación (NTE)

- Planoentzako legedia:
 - Formatuak UNE 1-026-83/2
 - Errotulazio kutxa UNE 1-035-95
 - Eskalak UNE 1-026-83/2
 - Osagaien zerrenda UNE 1-135-89
 - Idazkera UNE 1-034-71/1
 - Osagaiekiko erreferentziak UNE 1-100-83
 - Planoen tolestatzea UNE 1-027-95

2.1.4.2. Bibliografia

- J.A. Santos Pera, "Proiektuaren Teoria Orokorra" 2008
- ITEA "ESDEP TOMO 13: DISEÑO DE UNIONES"
- Enpresak:
 - EIROS
 - PANELES ACH
 - NOTIFIER
 - SOLER

2.1.4.3. Kalkulu eta diseinu programak

Egitura metalikoa eta hauen elementuen arteko loturak, zimendapena eta ainguraketa plakak *CYPE* programa erabiliz kalkulatu dira. *CYPE* hainbat tresna ezberdin ditu, petralen kalkulurako *Generador de porticos* erabiliko da, egiturari dagokion beste guztiarentzako *CYPE 3D*. Instalazioak kalkulatzeko *CYPE MEP* tresna du, kasu honetan iturgintza eta saneamendu sarea aurre dimentsionatzeko erabiliko da. Erabiliko de bertsioa 2018 da.

➤ Izen komertziala

CYPE

➤ Enpresa

Cype Ingenieros, S.A.
Avenida Eusebio Sempere nº5
03003 Alicante

Cypek planoak ateratzeko aukera du, baina plano hauek asko landu behar dira. Planoak marrazteko eta inprimitzeko *AutoCad* erabiliko da, 2016 bertsioa.

➤ **Izen komertziala**

AutoCad

➤ **Enpresa**

Autodesk, S.A.
Constitución nº1, 4ºplanta
08960 Sant Just Desvern (Barcelona)

Proiektuko lanen planifikazioa, "*Gantt Project*" software librea erabiliz egin da.

2.1.4.4. Beste erreferentziak

➤ Web-orrialdeak:

- <http://www.codigotecnico.org>
- <http://www.insht.es>
- <https://www.boe.es>
- <http://prontuarios.info>

2.1.5. PROIEKTUAREN DESKRIPZIOA

Egitura eraikiko den lursailaren azalera 6.323,84m²-takoa da, baina ezin da 4.253,82m² baino gehiago okupatu. Horrez gain, ezin dira 7.370,22m² baino gehiago eraiki solairu ezberdinen azalera kontuan hartuta. Parametro urbanistiko hauek eta izan litezkeen aktibitate industrialak kontuan hartuta egituraren beheko solairuak 4.200m² izango ditu eta goiko solairuak 700m² .

Egitura gauzatzeko bi material guztiz ezberdinak erabili daitezke, altzairua eta hormigoia. Hormigoia abantaila nagusiak eta desabantailak hauek dira:

➤ Abantailak

- Iraunkortasuna, suaren eta agente atmosferikoen aurkako erresistentzia handia du.
- Konpresio, flexio, mozketa eta trakzio indarren mende erresistentzia handia du.
- Jarraitutasuna eta monolitismoa, lotura-arazoak saihesten dira.

➤ Desabantailak

- Pitzaketak eman daitezke.
- Egite-azkartasun txikiagoa, gogortze-denbora eta klimatologiarekiko mendekotasuna ditu.

Egitura metalikoak hurrengo abantailak eta desabantailak aurkezten ditu:


➤ Abantailak

- Altzairuaren erresistentzia altua da pisu unitateko. Ondorioz, egitura erlatiboki arinagoa izango da eta berma puntuen arteko distantzia handiagoak ahalbidetuko ditu.
- Harikortasun handia du. deformazio handiak hauteman daitezke akats larriak gertatu aurretik.
- Muntaiaren azkartasuna. Etorkizuneko egituraren hedapen edo aldaketak erraztasun handiz gauzatzeko ahalbidetzen du.

➤ Desabantailak


- Korrosioa eta suaren aurreko portaera txarra du.
- Kostu handia

Proiektu honi dagokion eraikinaren egitura metalikoa ezango da. Habe eta zutabeak altzairuzko profil laminatukoak izango dira. Loturak ahal den neurrian torlojuekin egingo dira.



3 Irudia: Egitura osoaren 3D bista

Zimendapena hormigoi armatukoa egingo da: zutabe bakoitzeko zapata bat eta aldi zapata hauek beraien artean lotzen dira lotura-habeei esker.



4 Irudia: Zimendapenaren 3D bista

2.1.6. DISEINU BALDINTZAK

2.1.6.1. Egituraren dimentsioak

- Portikoen argia: 20 m
- Portikoen arteko distantzia: 5 m
- Egituraren altuera osoa: 12.07m
- Egituraren ertzera arteko altuera: 10,3 m
- Egituraren luzera totala: 30,31 m
- Egituraren zabalera totala: 120,76 m
- Teilatuaren inklinazioa: 10°
- Altzairu mota S355

2.1.6.2. Egituraren azalerak

- Behe solairuaren azalera: 4200m²
- Goiko solairuaren azalera: 700m²
- Urbanizatutako azalera:

Edifikatutako azalera totala: 4900m²

Partzelaren azalera totala: 6323,84

2.1.6.3. Urbanizazio-datuak


1. Taula: Urbanizazio datuak

	PARAMETRO URBANISTIKOAK	PROIEKTUA
Erabilera	Industrial eta komertziala	Industrial eta komertziala
Lursailaren azalera	6.323,84 m ²	6.323,84 m ²
Onartutako okupazio maximoa	4.253,82 m ²	3.678,51 m ²
Onartutako eraikigarritasun maximoa	7.370,22 m ²	4.200 m ²
Erabili behar den azalera minimoa	2.070,02 m ²	3.678,51 m ²
Altuera maximoa hegaleran	12 m	10,3 m
Altuera maximoa gailurrean	15 m	12.07m

2.1.7. PLANIFIKAZIOA

GANTT project			
	Nombre	Fecha de inicio	Fecha de fin
☐	• 1. PROIEKTUA	17/09/18	3/10/18
	• 1.1 Lizentzia	17/09/18	1/10/18
	• 1.2 Obraren zuinketa	2/10/18	3/10/18
☐	• 2. OBRAREN PRESTAKUNTZA	8/10/18	2/11/18
	• 2.1 Segurtasun planaren neurrien aplikazioa	8/10/18	16/10/18
	• 2.2 Lurren prestaketa	17/10/18	1/11/18
	• 2.3 Lurren hondeaketa	2/11/18	2/11/18
☐	• 3. HORMIGOIZKO EGITURA	5/11/18	20/02/19
	• 3.1 Zimendapena	5/11/18	30/11/18
	• 3.2 Forjatua	18/02/19	20/02/19
	• 4. ALTZAIUZKO EGITURA	3/12/18	15/02/19
☐	• 5. IGELTSEOTZA	18/02/19	13/03/19
	• 5.1 Hormigoizko blokeen itxitura	18/02/19	13/03/19
☐	• 6. AROTZERIA	14/03/19	22/03/19
	• 6.1 Estalkiak eta itxitura metalikoak	14/03/19	20/03/19
	• 6.2 Ateak eta leioak	21/03/19	22/03/19
☐	• 7. SANEAMENDUA	25/03/19	18/04/19
	• 7.1 Saneamendu hondeaketa	25/03/19	28/03/19
	• 7.2 Saneamendu sarearen muntaia	29/03/19	18/04/19
	• 8. ITURGINTZA	19/04/19	25/04/19
	• 9. SUAREN AURKAKO INSTALAZIOA	26/04/19	26/04/19
☐	• 10. URBANIZAZIO ETA AKABERAK	29/04/19	2/05/19
	• 10.1 Zolata eta asfaltoa	29/04/19	30/04/19
	• 10.2 Margolaritza	1/05/19	2/05/19

5. Irudia: Zereginen zerrenda



6. Irudia: Obraren denbora diagrama

2.1.8. PROIEKTUAREN KOSTUA

1.	Lurren mugimendua	7.599,91 €
2.	Zimendapena	45.454,23 €
3.	Saneamendua	17.891 €
4.	Egitura metalikoa	1.621.403,53 €
5.	Forjatua	31.577,16 €
6.	Estalkiko itxitura	44.892 €
7.	Alboko itxitura	10.623,44 €
8.	Barruko banaketa	3.450 €
9.	Suaren aurkako segurtasuna	7.673,4 €
10.	Osasun eta segurtasun ikerketa	10.112,10€
11.	Hondakinen gestio plana	10.952,35 €
12.	Kalitate kontrol plana	2.067,00 €

-Egite materialen aurrekontua 1.813.696,12 €

-Gastu orokorrak (%13) 235.780,49 €

-Etekin industrialak (%6) 108.821,76 €

-Kontrata bidezko egitearen aurrekontua 2.158.298,37 €

-BEZ (%21) 453.242,65 €

AURREKONTU TOTALA: 2.611.541,02 €

**BI MILIOI SEIREUN ETA HAMAIIKA MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA
BAT EURO ETA BI ZENTIMO**

2.1.9. OINARRIZKO DOKUMENTUAEN ARTEKO NAGUSITASUNA

Proiektu honetako dokumentu ezberdinen artean ezadostasunen bat agertzen bada, hurrengo zerrendan ordenatuta dauden moduan gailenduko dira:

1. Planoak
2. Baldintzen agiria
3. Aurrekontua
4. Memoria

2.2. MEMORIA ERAIKITZAILEA

2.2.1. ERAIKINAREN SOSTENGUA

2.2.1.1. Burututako ikerketa geo-teknikoa

Zimendapenaren kalkuluak egiteko lurzoruak jasan dezakeen tentsioa jakin behar da. Horretarako, ikerketa geo-tekniko bat eskatu ohi da. Kasu honetan poligonoa urbanizatu zen garaiko ikerketa geo-tekniko bat lortu da. Hauek dira ikerketaren ondorioak:

2.Taula: Parametro geoteknikoak

Sondeo kopurua	6
Lurraren tentsio onargarria	196kN/m ²
Lurzoruaren pisu espezifikoa	$\gamma = 17.5 \text{ kN/m}^3$
Lurzoruaren marruskadura angelua	25°
Deformazio modulua E	1100T/m ²
Hezetasuna	%20
Limite likidoa	43.5
Limite plastikoa	21.8
Plastikotasun indizea	22.6

2.2.2. ERAIKINAREN EGITURA


2.2.2.1. Zimendapena

Egituraren zimendapena sistema hormigoi armatuzko zapatekin gauzatuko da, egituraren zutabe bakoitzeko zapata bat. Zapatak hormigoi armatuzko habeekin lotuko dira. Zutabeek lurrari transmitituko dioten kargak ezberdinak izango direnez 12 zapata mota ezberdin egingo dira:

3.Taula: Zapata mota ezberdinen ezaugarriak

ZAPATAK		
Mota	Dimentsioak	Armatua
1.mota	240x240x55	12 Ø12 c/20
2.mota	215x215x45	9 Ø12 c/25
3.mota	220x220x50	10 Ø12 c/22
4.mota	75x75x40	3 Ø16 c/25
5.mota	200x200x45	8 Ø12 c/22
6.mota	220x220x45	9 Ø12 c/25
7.mota	180x180x45	7 Ø12 c/25
8.mota	260x260x55	13 Ø12 c/20
9.mota	310x310x75	20 Ø12 c/15
10.mota	335x335x80	13 Ø16 c/25
11.mota	270x270x65	16 Ø12 c/17
12.mota	250x250x60	14 Ø12 c/18

Lotura habe guztiak berdinak izango dira. Hona hemen dimentsio eta armadurak:



7.Irudia: Lotura Habearen zeharkako sekzioa

Zimendapenaren kokapena eta dimentsio zehatzak **4.Dokumentua : Planoak** dokumentuan zehaztuko dira.

2.2.2.2. Ainguraketa plakak

Zutabe eta zapaten arteko lotura egiteko zutabera soldadutako altzairuzko xaflak dira. Hormigoizko zapatekin lotzeko zapata egiterakoan pernoak jarriko dira. Hormigoia lehortzean azkoinen bitartez ainguraketa plaka bere tokian kokatzen da, zapata eta plakaren arten berdinketa hormigoia doa. Erabilitako altzairua S 355 izango da.

Ainguraketa plakek esfortzu ezberdinak jasan behar dituzte, hori dela eta 8 ainguraketa plaka mota ezberdin egingo dira:

4.Taula: Ainguraketa plaka mota ezberdinen ezaugarriak

AINGURAKETA PLAKAK		
Mota	Dimentsioak	Pernoak
1.mota	300x500x18	4Ø16 L=300 90°
2.mota	350x650x22	4Ø20 L=300 90°
3.mota	250x250x11	4Ø10 L=300 90°
4.mota	500x500x18	8Ø20 L=350 90°
5.mota	500x500x30	8Ø25 L=350 90°
6.mota	250x400x15	4Ø14 L=450 90°
7.mota	300x450x18	4Ø16 L=450 90°
8.mota	250x400x14	4Ø14 L=300 90°

Ainguraketa plaken kokapen imentsio zehatzak eta loturen ezaugarriak **4.Dokumentua : Planoak** dokumentuan zehaztuko dira.

2.2.2.3. Forjatua

Goiko solairuko forjatua aurrefabrikatutako hormigoi armatuko plaka albeolarrez egingo da. Azken aurreko eta azken portikoaren artean joango da 7 m-tara portikoaren zabalera osoan. Plakak habe metalikoen gainean jarriko dira eta honen gainean 50mm-tako konpresio kapa egingo da in situ.

Erabiliko diren plakak GILVA S.A. enpresarenak dira, 20cm-tako altueradunak.

5.Taula: Forjatuaren ezaugarriak

FORJATUAREN DATUAK	
Enpresa	GILVA S.A.
Izen komertziala	Placa alveolar P-20*123
Plakaren zabalera	1230mm
Plakaren lodiera	200mm
Konpresio kaparen altuera	50mm
Berezko pisua	4.03 KN/m ²
Plakaren hormigoia	HP – 45 / P / 12 / IIa Y _c =1.50
Konpresio kaparen hormigoia	HA – 25 / B / 16 IIa 1.50 Y _c =1.50
Armaturaren altzairua	B 500 S 1.15 Y _s =1.50


Dimentsio zehatzak **4.Dokumentua : Planoak** dokumentuan zehaztuko dira.

2.2.2.4. Altzairuzko egitura eta honen osagaiak

Egitura erresistentea osatzen duten elementu metaliko ezberdinak (portikoak, petralak, habeak eta arriostamenduak) deskribatuko dira.

a) Petralak

Petralak portikoen gainean kokatuko diren profilak dira. Hauen helburua itxituraren euskarri izatea eta itxiturari heltzen zaizkion kargak portikoetara transmititzea da. Norabide longitudinalean lotzen dira portikoaren habe eta kanpoko zutabeetan, portiko hastialetan zutabetxoetara lotzen dira norabide horizontalean.



8.Irudia: Generador de portikos-en portikoaren bista petralekin

Egitura 7 portikok osatzen dute, 5 metroko 6 hutsuneekin. Portiko hastialen zutabetxoak ere 5 metrotara daude. Profilak **S235 JR** altzairuzkoak izango dira, luzera osoan jarraiak.

Estakiko petralak **ZF-160x2.5** izango dira bata bestetik 1.6m-ra.


Alboetako petralak **ZF-160x2.5** izango dira bata bestetik 1.2m-ra.

b) Portikoak

Egitura 7 portikok osatzen dute. Portiko bakoitza batabestearen ondoan jarritako bi isurkitako 6 portiko simple dira. Guztira 120m-ko zabalera dute portikoek 20m-ko argiarekin eta **S355 JR** altzairuzkoak izango dira. Portiko guztiak simetrikoak dira ardatz bertikalean.

Portiko hastiala. P1.

Aurretik begiratzuz lehenengo portikoa da. Kanpoko 2 zutabeak **IPE 360** motakoak dira eta barneko 5 zutabeak **IPE 270**. Habeak **IPE 200** motakoak dira.




9.Irudia: Portiko hastiala P1

Aurretik jotzen duen haizearen kargak jasateko eta petralen berme puntuen arteko distantzia txikitzeko 3 zutabetxo jarriko dira portiko simple bakoitzean bata bestetik 5 m-ra. Luzeenak, portikoaren gailurreraino heltzen direnak, **IPE 220** motakoak dira, besteak IPE 200 motakoak.

P2.


Kanpoko 2 zutabeak IPE 360 motakoak dira eta barneko 5 zutabeak **IPE 270**. Habeak **IPE 300** motakoak dira.



10.Irudia: Bigarren portikoa P2

P3, P4 eta P5.


Kanpoko 2 zutabeak eta barneko 5tak **IPE 500** motakoak dira. Habeak **IPE 450** motakoak.



11.Irudia: Erdiko portikoa

P6.

Kanpoko 2 zutabeak eta barneko 5tak **IPE 360** motakoak dira. Habeak **IPE 270** motakoak. Zutabeen artean 5m-tara kokaturik 7 m-tako 3 zutabe daude portiko sinple bakoitzeko. Zutabetxo hauek goiko solairua eusten dute eta **HE 140 B** motakoak dira. Zutabetxo hauen gainean forjatuarentzako euskarri izango diren **HE 160 B** motako habeak jarriko dira zutabe nagusien arteko jarraitasunarekin.




12.Irudia: Azken aurreko portiko P6

Portiko hastiala. P7.

Azken portikoa da eta lehen portikoa bezala 3 zutabetxo ditu portiko sinpleen zutabeek gain. Zutabe nagusiak **IPE 360** motakoak dira, zutabetxoak **HE 240 B** aldiz.

P6 portikoa bezala forjatua eusteko 7m-tara **HE 240 B** motako habeak jarriko dira.



13.Irudia: Portiko hastiala P7

c) Habe longitudinalak

Portikoak lotzen dituzten barrak dira, portikotik portikora eteten dira. Portikoen kanpoko zutabeei 10m-ko altueran **HE 140 B** habe ez jarrai bat lotuko zaie. Barruko zutabeetan berdina gehi beste **HE 140 B** habe ez jarrai bat 3m-tara eta beste bat 7m-tara. Kanpoko lehenengo eta azken bi zutabeen artean 7m-tara **HE 140 B** habeak jarriko dira. Lehenengo bi portikoen eta azken bi portikoen haben artean horizontalarekiko 5 m-ko tartearekin **HE 140 B** habeak jarriko dira, moduluen erdian (habeak lotzen diren tokian) **HE 140 B** jarri beharrean bi **UPN 180** jarriko dira aurreko habearekin sortzen diren lotura arazoak sahiesteko.

d) Arriostremendua


Norabide longitudinallean eraikinean eragiten duten indarrei eusteko lehenengo bi portiko eta azken bi portikoak arriostratu egingo dira. Gurutzeak aurreko atalean azaldutako haben artean joango dira. Altzairuzko kableak jarriko dira.

2.2.2.5. Loturak eta konexioak

Ondoren, aurreko ataleko elementuen arteko loturak deskribatuko dira. Ahal izan ezker loturak torloju bidez egingo dira, soldadurazko lotura torlojuak toki nahiko ez dutenean egingo da. Xaflak eta zurruntzaileak lotzeko kasu guztietan soldadura erabiliko da.

a) Erdiko portikoen habeen (IPE 450) arteko lotura


Portikoen gailurrean bi IPE 450 habe lotzen dira. Habeen muturrak 230x500x15 dimentsioetako xafla bati daude soldatuak eta 6 torloju erabiliz xafla biak lotzen dira.



14. Irudia: Erdiko portikoen habeen (IPE 450) arteko lotura

b) Erdiko portikoaren kanpoko zutabearen (IPE 500) eta portikoaren habearen (IPE 450) arteko lotura


IPE 450 habeak 200x600x18 xafla du muturrean soldatua. Xafla **IPE 500** zutabearen hegalararen kontra jartzen da eta 10 torlojurekin lotuko da. Habearen hegalararen mailara zurruntzaileak jarriko dira zutabearen. Portikoaren planoarekiko perpendikularrean alde bietatik zutabearen arimara HE 140 B habe longitudinalak lotuko dira. Zutabearen arimara 140x75x8 neurrietako bi xafla (alde bakoitzean bat) soldatzen dira eta xafla hau IPE 140 habearen arimara lotzen da bi torlojuen bidez.



15.Irudia: Erdiko portikoaren kanpoko zutabearen (IPE 500) eta portikoaren habearen (IPE 450) arteko lotura

c) Forjaturentzako euskarri diren HE B zutabea eta HE 160 B habearen arteko lotura

Zutabearen **HE 140 B** muturrean 160x260x12 xafla soldatuko da. Xafla **HE 160 B** habearen hegaldaren kontra jarri eta 6 torlojurekin lotuko dira. Zutabearen hegaldaren parean zurruntzaileak jarriko zaizkio habeari.




16.Irudia:Forjaturentzako euskarri diren HE B zutabea eta HE 160 B habearen arteko lotura

d) Portiko hastialaren zutabetxoaren (HE 200 B), portikoaren habearen (IPE 200) eta habe longitudinalaren (HE 140 B) arteko lotura

IPE 200 zutabetxoaren muturrean 100x130x9 xafla bat soldatuko da arimara. Xafla hau 4 torlojuren bidez lotuko da **IPE 200** habearen hegalerara.


HE 140 B habe longitudinalari hegalak ebakiko zaizkio eta **IPE 200** habearen ariman soldatutako 140x94x10 xafla bati lotuko da 2 torloju bidez.



17. Irudia: Portiko hastialaren zutabetxoaren (HE 200 B), portikoaren habearen (IPE 200) eta habe longitudinalaren (HE 140 B) arteko lotura

e) Arriostamendua (R20) eta zutabearen (IPE360) arteko lotura

Arriostamendua 20cm-tako diametroa duten altzairuzko kableek osatzen dute. Kable hauek gurutzeak osatuz jarriko dira portiko hastialen eta hurrengoan artean. **R20** kableak eta **IPE 360** zutabea lotzeko L formadun altzairuzko xafla soldatuko da zutabearen ariman. Xaflaren aurpegietako bat kablearen norabidearekiko perpendikularra da eta 22cm-tako zuloa du. Kableak zutabearen ariman eginiko 24x33 zuloa (zuloaren ardatz nagusia arriostamenduaren planoan dagoena) eta L xaflaren zuloa gurutzatuko ditu eta bi azkoinen bitartez lotuko da. Zuloak kalkulu puntutik 20 cm desplazatuko dira lotura ahalbidetzeko.



18.Irudia:Arriostremendua (R20) eta zutabearen (IPE360) arteko lotura

2.2.3. BANAKETA SISTEMA

Egitura 6 zatitan banatuko da hormigoizko blokeez egindako hormak erabiliz. Beraz 20 m-tako argia eta 30m tako zabalera duten ondoz ondoko moduluak lotuko dira.

Portikoen erdiko zutabeen alde bakoitzera 200x400x200 hormigoizko bloke aurrefabrikatuz egindako horma egingo da. Beraz, 6 establezimendu ezberdin izango diren 6 modulutan gelditzen da egitura banatuta. Egitura amankomuna duten harren sute sektore ezberdinak osatuko dituzte.


2.2.4. AKABERA ELEMENTUAK

2.2.4.1. Itxitura mota

Eraikinaren albo eta goi itxiturak **ACH** enpresaren 80mm-tako lodiera duen **PANEL DE CUBIERTA 5 GRECAS ACH** panelak erabiliko dira. Panel hauek altzairuzko bi xafla eta hauen erdian doan arroka-zuntzak itsatsiz lortzen dira. Altzairuzko laminek 0,5mm-tako lodiera izango dute eta arroka-zuntzeko nukleoak **EN 13162** araua beteko du. Suarekiko erresistentziari dagokionez EI-60 da.



19.Irudia: Itxitura panelaren sekzioa



20.Irudia: Itxitura panelen arteko lotura

Espesor (mm)	Peso (Kg/m ²)	K (W/m ² K)	EI (min) Res. fuego*
30	13,1	0,901	—
40	14,3	0,840	—
50	15,5	0,621	30
60	16,7	0,589	30
80	19,1	0,414	60
100	21,5	0,404	120
120	23,9	0,340	120
150	27,5	0,275	120
200	33,5	0,209	120


21.Irudia: Panel 5 grecas ACH panel seriearen ezaugarriak

Luz	80	100	120	150	200	Coeficiente Seguridad 2,5 Flecha L/200 Núcleo tipo M
E30	3,40	290	2,60	2,21	—	
E40	3,60	3,10	2,85	2,35	—	
E50	3,96	3,42	2,98	2,50	1,92	
E60	4,40	3,75	3,10	2,80	2,25	
E80	5,76	5,16	4,48	3,66	2,77	
E100	6,60	5,68	4,76	3,88	2,94	
E120	7,50	6,10	5,15	4,41	3,12	
E150	8,90	7,48	6,50	5,05	4,08	
E200	9,40	8,30	7,05	6,00	5,20	

22.Irudia: Panel 5 grecas ACH panel serien erresistentzia

2.2.4.2. Fatxaden defentsak

Lurzoru mailatik 2m-ko alturaino itxitura hormigoi prefabrikatuko blokeez egindako horma periferikoak osatuko du, eraikinaren sarreran horma bako hutsunea utziko da atetzarra kokatu ahal izateko. Blokeen dimentsioak 20x40x20 cm dira eta irudian ikusi daitezke.



23.Irudia: Hormigoizko bloke aurrefabrikatua


2.2.4.3. Barruko paretak

Eraikin osoa 6 modulutan banatuko da, portikoaren erdiko zutabeen alde bakoitzean horma bat eraikiz. Horma aurrefabrikatutako hormigoizko blokeez egingo da. Blokeak 20x40x20 cm takoak dira, dokumentu honen 23.Irudian ikus daiteke blokearen itxura eta dimentsioak.

2.2.4.4. Eskailerak

Modulu bakoitzean beheko solairua eta goiko solairua komunikatuko dituen eskailera metalikoa eraikiko da. Erabilitako altzairu laminatu mota **S275** izango da. Perfil metalikoen arteko loturak torlojuekin gauzatuko dira. Eskailerak jasan beharreko kargak berezko pisua eta gune administratiboei CTE-k egokitzen dien erabilera gainkargak dira. Diseinua gauzatu aurretik **NTP 404: Escaleras fijas** dokumentuan erakusten diren jarraibideak aztertu dira eskaileren erabilerak dakartzan arriskuak murriztu naian.

Eskaileraren neurri eta dimentsio zehatzak **4.Dokumentua: Planoak** dokumentuan ikusi daitezke.



24.Irudia: Eskaileraren 3D bista

2.2.5. INSTALAZIO-SISTEMAK

Instalazioak diseinatu eta kalkulatzeko orduan, egitura osoa kontsideratu beharrean moduluetakoa bat aukeratuko da. Behin modulu batean kalkulaturik, besteetara kopiatzea izango litzateke.

2.2.5.1. Suteen aurkako instalazioa

Instalazio honen helburua sute egoeran seguritatea bermatzeko betebeharrak definitzea da, sutearen agerpena saihesteko eta sutea ematen den kasuan erantzun egokia eman eta honen hedapena gelditzeko, eragin daitezkeen kalteak saihestu edo murrizteko.

Instalazio hau definitzeko “**Reglamento de Seguridad Contra Incendios en los Establecimientos Industriales**” eta **CTE-DB-SI** araudiak jarraituko dira.

Kasu honetan 6 modulu ezberdinez osaturiko egitura dugu, modulu bakoitzean aktibitate ezberdin bat emango da eta hauetako bakoitzak suaren aurkako proiektua behar du aktibitatea hasi aurretik. Poligonoan eman daitezkeen aktibitate ohikoen artean berezko su arrisku handiena duena hartuko da eredu modura suaren aurkako instalazio diseinatzerakoan.

Establezimendu hauek bata bestearen ondoan daudenez eta egitura amankomuna dutenez A motako establezimendu moduan definitzen dira.

Sute arrisku intrintseko BAXUA 2 da.

Gune industrialak eta administratiboak gehituz, 700m² osatzen dute eta sektore bakar bat osatuko dute.

Kalkuluak eta hartutako erabakien justifikazioa **8.Dokumentua: Berezko garrantzia duten ikerlanak** dokumentuan **8.1** atalean ikusi daitezke

Elementu erresistenteen suarekiko egonkortasuna

“Reglamento de ta Contra Incendios en los Establecimientos Industriales” dokumentuko 2.2 taularen arabera egitura erresistenteak **R 90** izan behar du. Zutabe eta habe metalikoak **PROMAPAIN SC4** pinturarekin marraztuko dira **EN 13381-8:2010** araudiak dion lodierarekin. Lodiera hauen taulak **3.Dokumentua: Eranskinak** dokumentuan ikus daitezke.

Estalki arina (berezko pisua 100kg/m² baino gutxiago) jasaten duen egitura printzipalak (petralak ez daude barne) RSCIEI-ko 4.2.5 atalaren arabera **R 120**

izan behar du. **PROMAPAIN SC3** pinturarekin marraztuko da estalkiaren egitura printzipala beharrezko lodiera aplikatuz.

Itxitura elementuen suarekiko erresistentzia

Sute sektorea mugatzen duten itxiturak EI 90 izan behar dute. Defentsak hormigoizko bloke aurrefabrikatutakoak izango dira 20 cm-tako lodierarekin, beraz araudia betetzen dute. Itxitura metalikoak ez du erresistentzia minimoa betetzen. Itxiturari beharrezko erresistentzia emateko **PROMAT-en PROMATECT 100** 3 plaka jarriko dira **EI 120** erresistentziarekin.

Moduluen arteko horma **EI 120** izan behar da eta horma barneko zutabeak **REI 120**. Horma zementuzko bloke aurrefabrikatuz osatzen da, blokeen lodiera 20cm izanda badu jada eskatzen zaion suaren aurkako erresistentzia. Zutabeak **PROMAPAIN SC3** pinturarekin marraztuko dira beharrezko lodiera aplikatuz.

Erdiko hormak fatxadarekin eta estalkiarekin topo egiten duen tokian metro bateko zabaleran erdiko hormak izan behar duen suarekiko erresistentziaren erdia egon behar da gutxienez. Itxitura egiteko **PANEL 5 GRECAS ACH 80mm** erabiliko da jada **EI 60** dena.

Ebakuazioa

Sute egoeran establezimendu barruan dauden pertsonen ebakuaziorako segurtasun neurriak hartuko dira.

Segurtasun baldintzak zeintzuk diren jakiteko P okupazio kalkulatu behar da:

$$P = 1.10p$$

Non, p establezimenduan dauden pertsona kopurua da. Guztira 20 pertsonak lan egiten dutela suposatuko da. Beraz, P=22.

RSCIEI-ren II.Eranskinaren 6.2 puntuaren arabera A motako establezimendu izateagatik eta aktibitate industrial eta industrial ez den beste aktibitate bat batera ematen direnean *CTE-DB-SI* araudia jarraitu behar da.

Ebakuazio ibilbide maximoa ezin izango da 50m baino gehiago izan. Kasu honetan 38m-koa da.

Ateek 0,80m-tako zabalera izan behar dute gutxienez. Eskailera ez da babestu behar eta 0,80m-tako zabalera izan behar du gutxienez. Ateak 80cm-tako zabalera izango dute eta eskaileraren zabalera 1,20m-tako izango da.

Detekzio sistema automatikoa

Detekzio sistema mikroprosezatu bat jarriko da. NOTIFIER enpresaren NFS seriekoa hain zuzen. *CPD EN 54-2* eta *CPD EN 54-4* zertifikatuak ditu.

Zona industrialean aurreko horman, zentratuta eta 8m-tara detektore optiko lineal bat jarriko da. Honen aurrean, goiko solairuaren paretan islatzailea jarriko da. Goiko solairuan 8 detektore optiko jarriko dira sabai aizunean. Hauen kokapena **4.Dokumentua: Planoak** dokumentuan **Suaren aurkako segurtasuna** planoan ikusi daiteke. Irteeran alarma pultsadore bat jarriko da.

Su-itxalgailu eramangarriak

Establezimendu osoan zehar su-itxalgailu eramangarriak kokatuko dira, edozein tokitatik 15m baino gutxiagoko distantziara. Hauen kokaleku zehatza **4.Dokumentua: Planoak** dokumentuan **Suaren aurkako segurtasuna** planoan ikusi daiteke.

Guztira 4 su-itxalgailu ABC-hauts motakoak dira, 1 goiko solairuan eta besteak behean. Horrez gain, CO₂ motako beste su-itxalgailu bat kokatuko da koadro elektrikoaren ondoan (planoetan sarreraren ondoan egongo dela suposatuta da).

Su-itxalgailuen eraginkortasuna *21A-113B* izango da.

Hornitutako sute-aho sistema

Establezimenduaren sarreran DN 25 sute-aho bat instalatuko da euskarri zurrun baten barruan 1,4 m tara zolatatik. Baldintza berdinetan beste sute aho bat jarriko da eskaileraren ondoan. Hodi sistemak, ordubetez bi ahoak hornitu behar ditu, aldi berean funtzionatzen, edozein ahotan presioa 2 bar baino presio handiagoa eta 5 bar baino presio txikiagoa izateko.

Seinaleztapena

Ohiko irteerak eta larrialdi irteerak seinaleztatuko dira, baita suaren aurkako babes-sistema manualak UNE 23033, UNE 23034 eta UNE 23035 arauak jarraituz.

Goiko pisuko seinaleak 210x210mm-takoak izango dira eta behean 420x420mm-takoak.

2.2.5.2. Saneamendu-sarea

Hondakin-urak eta euri-urak batu estolda-sailera grabitateari esker bideratzeaz arduratuko diren bi instalazio ezberdin diseinatuko dira. Diseinurako CTE DB HS5 araudia jarraituko da. Estolda-sarearen hargunearen diametroa 200mm da. Instalazio biek lehen mailako aireztapena izango dute. Hondakin uren kasuan 1,3m luzatuko dira eta 1m euri uren lehen mailako aireztapenean.

Beheko solairua 2 komun-ontzi eta konketa 1 egongo dira eta goiko solairuan berdin ere. Elementu bakoitzetik irten beharreko deribazio indibidualen diametro minimoak CTE BD HS5 4.1 taulan ezartzen dira. Konkentzako 32mm-tako diametroa eta komun-ontzientzako 100mm-tako diametroak ezartzen ditu.

2.2.5.2.1. Hondakin-uren sarea

Ur hornikuntza duten elementuetako hondakin-urak batu eta estolda-sailera bideratuko dituen sarea diseinatuko da. Elementu bakoitzetik irten beharreko deribazio indibidualen diametro minimoak CTE BD HS5 4.1 taulan ezartzen dira. Konkentzako 32mm-tako diametroa eta komun-ontzientzako 100mm-tako diametroak ezartzen ditu.

Hodierian erabiliko den materiala PVC da UNE-EN 1329-1 arauaren arabera. Loturak kola erabiliz edo akoplatuta egingo da. Kola erabilitako loturetan luzerak horrela eskatzen duenean dilatazio zorroak gehituko dira gehiegizko zurruntasunak saihesteko. Forjatua gurutzatzen duten hodien eta forjatuaren artean material elastiko eta iragazgaitz bat jarriko da landatua egoteak ekarriko lukeen zurruntasuna saihesteko.

Zorroten bat erabiliko da goiko solairuko urak lur-mailara jaisteko, PVC DN110 izango da. Adarrak PVC DN100 izango dira eta ur denak batu ostean estolda-sarera bideratzeko hodi biltzailea PVC DN125 izango da eta lur-azpitik joango da. Hodieria horizontalak %2-ko inklinazioa izango du. Hodi biltzailea CTE DB HS5 5.4.3. atalean dakarren dimentsioak dituen lubakian joango da edateko uraren distribuzio sarearen azpitik.

Zorrotenaren azpian kutxatila bat jarriko da eta bote sifoniko bat komun bakoitzean.

2.2.5.2.2. Euri uren sarea

Estalkiko euri-urak batu eta estolda-sailera bideratuko dituen sarea diseinatuko da.

Erretenei %2 inklinazioa emango zaie. Altzairu galbanizatuzko 4mm-tako xaflarekin egindako erreten errektangeluarrak izango dira. Hauen sekzioaren azalera onargarria izan dadin 4.7 taula-ren arabera dagokion erreten zirkularraren sekzioa baino %10 handiago izan behar du erreten errektangeluarraren azalera. Kanpoko erretena 700x45mm izango da eta modulu biren artean doan erretena 514x68mm.

Erretenetatik urak zorrotenen bidez bajako dira lurzoru mailaren azpira kutxatila bateraino. Estolda-zulo bakoitzeko PVC DN110-eko zorroten bat jarriko da. Ur hauek PVC DN110 hodian bitartez batu eta eraikinaren kanpoan dagoen kutxatilara eramango ditu %2 inklinazioarekin.

Kutxatila 60x60cm-takoa da eta estolda-sailera konektatzen da.

2.2.5.3. Iturgintza

Goiko solairuko eta beheko solairuko komunak urez hornituko dituen sarea diseinatuko da. Komun biak berdinak dira, bi komun-ontzi eta konketa bat dituzte. Konketa kasuan ur beroaren hornikuntza ere aurreikusiko da ur beroaren hodieria ere diseinatuz.

Iturgintza sarea herriko ur hornikuntza sarera konektatuko da egituraren atzeko aldetik. Uraren presioa igotzeko ponpatu egingo da. Beheko solairuan ura berotzeko sortzeko galdara bat jarriko da.

Iturgintza sareak CTE-DB-HS4 araudian jarritakoa beteko du. Hodieria kuprezkoa izango da.

2.3. CTE BETETZEA

2.3.1. EGITURAREN SEGURTASUNA

DB-SE-arekin batera aplikagarri diren preskripzioak

DB-SE-a hurrengoko Oinarrizko Dokumentuentzako oinarria da eta honekin batera erabiliko dira:

		atala	Erabilia	Ez erabilia
DB-SE	3.1.1	Seguridad estructural:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
DB-SE-AE	3.1.2.	Acciones en la edificación	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
DB-SE-C	3.1.3.	Cimentaciones	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
DB-SE-A	3.1.7.	Estructuras de acero	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
DB-SE-F	3.1.8.	Estructuras de fábrica	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
DB-SE-M	3.1.9.	Estructuras de madera	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Horrez gain, hurrengo arauen espezifikazioak eduki behar dira kontutan:

		atala	Erabilia	Ez erabilia
NCSE	3.1.4.	Norma de construcción sismorresistente	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
EHE	3.1.5.	Instrucción de hormigón estructural	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
EFHE	3.1.6	Instrucción para el proyecto y la ejecución de forjados unidireccionales de hormigón estructural realizados con elementos prefabricados	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

REAL DECRETO 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación. (BOE núm. 74, Martes 28 marzo 2006)

Artículo 10. Exigencias básicas de seguridad estructural (SE).

1. El objetivo del requisito básico «Seguridad estructural» consiste en asegurar que el edificio tiene un comportamiento estructural adecuado frente a las acciones e influencias previsibles a las que pueda estar sometido durante su construcción y uso previsto.
2. Para satisfacer este objetivo, los edificios se proyectarán, fabricarán, construirán y mantendrán de forma que cumplan con una fiabilidad adecuada las exigencias básicas que se establecen en los apartados siguientes.
